



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresan, Aines, Eneritz, Haritza eta Iradi izango gara nagusiak eta guk geuk egingo ditugu zenbait lan. Batetik, ekoizpenekin, giza baliabideekin, finantzekin eta “marketing”-arekin egingo dugu lan. Bestetik, azpikontratazioak egingo ditugu, betaurrekoak sortzen dituzten “Nardaya” Urnietako enpresarekin. Horrela, guri produktua sortzearekin batera, Nardaya enpresari ere enplegua sortzeko aukera emango diogu.



Hasieran aipatutako lanak, guk burutu beharrekoak, horrela banatuta egongo dira: Ainesek, ekoizpen lana egingo du, materialak bilduz gure produktua aurrera eramanez. Bestetik, Haritza giza baliabidetan arituko da, langileen egoeraz arduratuz, haien enpleguak kontrolatzen, arazoak konpontzen edota erabakiak hartzen. Eneritzek orde, finantzekin egingo du lan, enpresako kontuak eramango ditu, dirua kontrolatuz edota beharrezkoa izanez gero prestamuak eskatuz. Azkenik, Iradi “marketing”-ean arituko da, gure produktua zabalduz publizitatea edota promozioak egiten.



Guretzat hornitzaile horiek guztiak garrantzitsuak dira gure enpresarentzat hainbat arlotan. Batetik, enpresetan enplegua sortzen laguntzan du, bestetik, produktua sortzen, finantzak zaintzea eta kostuak egokitzea lagungarria da guretzat. Eta nola ez, marketing-ak, gure produktua esternalizatzen lagunduko digute. Laburbilduz, gure enpresaren arrakasta sustatzen lagunduko digu.

